

Erlijioa Gipuzkoako Foruetan (II)

Además de los derechos y deberes individuales, en todo régimen político de Cristiandad hubo de plantearse cuál sería la configuración socio-religiosa oficial de la sociedad -excluyente, incluyente o hegemónica- y cómo se articularía la relación del Estado con la(s) Confesión(es) religiosa(s) presentes en el mismo. He aquí algunos rasgos de la Gipuzkoa foral.

Euskal Herriak Europako Mendebalde honetan lekaturik eta gobernu-barruti kristauetan banatuta bizi izan du bere bizitza politiko-erlijiosoa. Bestalde, Euskal Herrialdeek agente beregaina zuten neurrian, beregandik sortutako ekinbiderik egon zen bizitza erlijiosoa euskal gizartean arautzeko.

Hori horrela, Euskal Herriko Foru erakunde legegileek beren zeregina bete zuten, garaian garaiko interes nagusiei erantzunez, gizarte harmoniatsu bat zaindu eta gidatzen.

Gizarte fededuna: zein gizarte, zein fede?

Euskal gizartearen definizioan bertan elkarrekin Foruetan ageri zaizkigun bi baldintza egon ziren, batez ere XVI. mendetik aurrera: bata etnikoa (odol garbiarena) eta bestea erlijiosoa (erlijio kristau-katolikoarena). Egia esan, biak ere bat ote ziren nago: erlijiotasun ona zen frogatu behar zena, noblezasunarekin batera.

Herritar "odol garbien" historia Aro Modernokoa da batez ere: "kristau zaharra" izan behar zen, guraso eta asaba judu edo mairurik gabea. Herri-karguetarako eta zenbait Unibertsitate-tan sartzeko "garbitasun" hori eskatzen hasi ziren Gaztelan 1450 ingurutik aurrera (Toldedo, Salamanca...). Eskakizun hori are gehiago gogortu eta orokortu zen "odol garbiaren arautegiak" indarrean jarri zirenetik (c. 1540-1550).

Gizartea bi sail handitan banatu zen, lege eta usadioen arabera: odol garbiko kristau zaharrena zen bata eta jatorri iluneko "kristau berriena" bestea; hau da, odol-garbitasuna badaezpada frogatu egin behar zutenena. Euskal Foruek bertako herritar guztien odol garbitasuna eta kaparetasuna segurtatu nahi izan zuten, eta balio izan zuen gurean denen berdintasun juridikoa ezarri eta erbestean ere noble-eskubideak frogatzeko. Esaterako, Gipuzkoan oinetxea zuenak Ameriketara bere gorabide sozialerako bidea irekita izan zezakeen, adibidez.

Gizartearen barne-banaketa horretan, gutxiengo etniko-erlijiosoen arazoa zegoen, noski, eta berezikiago judu eta mairuena. Ezaguna da Euskal Herrian juduek beren presentzia izan zutela 1492-1498a arte, batzuetan auzo propioak zituztela, gainera, eta mairu edo mauriskoak, modu batera edo bestera, 1609-1610a arte bizi izan ziren Penintsulan.

Foruek ez-ikusitako egiten zioten euskal historia horri, beti ere herritarren jatorri garbia zalanztatan jar zezakeelako, eta badaezpada aurretik legez segurtatu nahi izan zen garbitasun gutziatua: "Judío, ni descendiente de ellos no puede avecindarse ni vivir ni morar en la Provincia, so pena de perdimiento de bienes y las personas a merced de Su Majestad" (1527,



1649). Neurri etniko-erlijiosoa zen, noski. Eta honek berdin balio zuen mairuentzat ere, eta gisa berean haien eta hauen ondokoentzat.

Foruen Eliza antolatuan

Historiatik, eliz Zuzenbide orokorretik eta hemen bertako nahiz inguruko Kontzilio eta Sinodoetatik zetorren moldatuta Euskal Herriko eliz antolaera. Ez zen, beraz, bereziki gure Erakundeek erabakitakoa; baina Eliza hain bertakoa eta bertakoentzakoa zenez, Foruek gogoan izan zuten eliz Erakunde hori, nahiz eta gero Aro Modernoko Erregeen Zaingoak (*Patronato Regio*), adibidez, bere eskuetan zuen gure gotzainak hautatu eta proposatzea.

1950.a arte, Gipuzkoak ez zuen izan Probintziako eremuetara bildutako diozesirik, ezta egoitza bertan zuen Gotzaindegirik ere: Calahorra, Iruñe eta Baionatik eraman zen Gipuzkoako eliz gobernua; dena den, diozesi haiek hemen beren azpi-barrutiak izan zituzten, eskualdeak, parrokiak eta mota ezberdinetako elizguneak, egunerokoan bertatik gobernatuak.

Gipuzkoako Foruek azken kapitulu osoa eskaini zioten eliz historia, antolaera, zuzenbide eta bizitzari, betiere Probintziaren eta gipuzkoarren eliz eskubideak zaintzen zituztela. Era berean, Gotzaindegien eskumenari zuzenbidezko muga jakinetan eutsi nahi izan zioten.

Probintziak hiru Artziprestalde zituen: 1) Hondarrikoa, Oiartzun barnean zuela Irundik Pasaiara zihoana. 2) Artziprestalde Nagusiak

Probintziarik gehiena hartzen zuen, eta 3) Debaldea, berriz, Calahorraren mende zegoen. Antolamendu hau beregaina zen, eta elizgizonek gobernatua.

Gotzainak Koroak propotuta izendatu ohi ziren bitartean, Gipuzkoako Parroko, Bikario eta Benefiziatuak, bakoitzaren historiaren arabera, Gotzainak edo erakunde bakoitzari zegokion Zaingoak hautatzen zituen (Errege, Udal edo partikularren Zaingoak zutenak). Hortaz, sarritan eskua herritar laikoek zuten izendapen-proposamena egiteko.

Bizkaian bezala Gipuzkoan, norbanako herritarrek edo Udalek eliz benefizioen gain zuten eskumena arreta handiz zaindu zuten Foruek, zeren eta "la más numerosa parte de los beneficios eclesiásticos son patrimoniales en la Provincia. A muchas Repúblicas [=Udalerrriak] en calidad de patronos corresponde su presentación y proceden a ella con toda solemnidad".

Kasu askotan, halako karguetarako hautagai izateko herrian herriko semeek izan zuten lehenetasuna. Garrantzizkoa zen hori, ez bakarrik pastoralaren euskal inkulturazioa errazteko, baita parrokia eta elizen ekonomiarako ere, horrela hamarrenak bildu eta banatzeko eskubidea Zaingoaren eskuetan geratzen baitzen.

Parrokiena horrela, bestalde fraide eta moja komentuen mundua zaindu behar zen, gainera. Hurrengo batean ikusiko dugu hori.

Joseba Intxausti